

JOANES LEIZARRAGA-REN LANEZ

1977 - VI - 24

P. Lafitte

Euskararen sakonki ikertzeko, Leizarraga-ren lanak baitzepadakoak ditugu. Heietan hausi ditzake bertze nehon aurki ez genezazken argitasun batzu, salatzen digutelakotz zer zen gure aiten mintzairia hamaseigarren mendean, horrela konturatzen ahal baigira, geroztik hunat euskarak egin duen bidez, hots jasan dituen on-gaitzez.

ARGITARATZE BERRI BATI BURUZ

Nekez eskura ditzake Leizarragaren lanak. Behar litazke berriz argitaratu. Nolaz bada?

Zorigaitzez Euskalzaindiko "abedea" laburxkoa da "sibilante" batzuen idazteko. Leizarragak berexen ditu elgarretarik *gente, osso, aisa* hitzetan diren sibilanteak: *gente, "g.e."* letrekin, *osso, bi esekin, aisa, ese* bakarrarekin. Adibide horiek aski bekizkit txosten huntako.

Uste dut Leizarraga-ren lana idazia izan den bezala uztekoa dela, notetan behar balinbaditugu ere erakutsi gure azalpen eta ipotesiak.

Vinson, Van Eys, Dodgson eta bertze zenbaitek publikatu izan dituzte Leizarragaren lan batzu, baina ez dute textoa osoki errespetatu. Irarkolako hutsak zirelakoan zenbait hitz aldatu dituzte, ustez eta zuzentzen zituztela.

Schuchardt-ekin aitor dugu akatsak baditazkela ehunka irarkolariek utziak; baina ez da beti errex jakitea ea guk makurtzat daukagun forma bat, zinez husduna den, ala xoilki izen-kide bat, "variante" bat.

Adibidez baditake behin *hastapen* hitza irakurtu dugula eta urruntxago *hatsapen*: horrek ez du batere erran nahi bi hitz horietarik batto akatsa dela; gauza bera *beldur* eta *bildur* aldizkatzen badira liburu batean. Utz beraz textoa bere gisa, notetan emanez gure eritziak edo duda-mudak.

NOTEZ EDO OHARREZ

Textoa bere gisa utzi-ta frango ilun gelditzen da, eta argitasun-beharretan. Nundik aterako ditugu argi horiek? Alabainan bilduko ditugu lehen-lehenik Leizarraga hurbilenik miatu dutenen aburuak.

Hasteko, Theodor Linschmann eta Hugo Schuchardt-en lanetarat joko dugu, Van Eys-enak baztertu gabe.

Bainan Rene Lafon gure adixkide zenaren idazkietan badukegu iturburu bat nasaia eta zinez seguragoa.

Leizarraga ikertu duten gehienek uste izan dute *Testamentu Berria* latinez edo grekoz edo berdin bertze edozein mintzaireraz ezagutuz geroztik, aise zilatuko zituztela euskal-itzulpenak zituzken ilunbe eta ulert-gaitzak.

Lafon-ek aldiz ez zuen ahortzi gure euskaldun itzultzalea Calvinisten Bible frantsesari jarraiki zitzaiola hertxiki. Iturburu hortaz baliatu zen Lafon bere aldiaren eta hortan atxeman zuen laguntza asko. Ez balu ukan zuhurtzia hori, iduri zait haren *Système du verbe basque au XVI siècle* ez zela izan den bezain zehatz eta aberats.

Baina Lafon-ek ez du bakarrik argitan ezarri Leizarragaren aditza.

Euskarak hainitz adar baditu, aditzaz bertzalde, eta denak ohargarri zitzaizkon gure euskalzaleari; haren artikuluetan huna lantu dituen ekai batzu = la composition des mots basques, le genre grammatical, la comparaison, l'épithète et le cemplémert de nom, l'indéfini, les deux génitifs, le relatif, la proposition nominale, la personne dans le verbe basque, eta abar. Sujet horiek zerabilzkalarik, gogoia hegal-dalzen zitzaion Leizarragaren ganat eta hartzen ziozkan asko argi-bide.

Xehetasun horiek ere biltzekoak dira, oharren aberas-teko.